



Ugartebidetxebarria (-a) *etxebizitza*

Aldacerak:

Ahozkoa: Uhertebide etxebarria



43° 11' 12"

2° 36' 1"

Gerediaga Elkarte / T. Angoitia

Arestian aipatu dugun moduan, 1859ko izen-degian *Ugartebidéas* (1859, BUA, Nmcr) agertzen da, horrek esan gura du urte horretarako *Ugartebidetxebarria* baserria eraikita zegoela. Dena den, dokumentazioan XX. mendean topatuko ditugu lehendabiziko aipuak: *Ugarte Echebarria* (1905, BUA, 40) hasiera batean, eta *Ugartevide Echebarria* (1910, BUA, RU) eta *Ugartebide echevarri* (1967, BUA, CE) geroago. Auzotarren artean, *Uhertebide etxebarria* da ahozko formarik erabiliena.

Izenak adierazten duen moduan, etxe berria da, XIX. mendean egindakoa, eta garaiko beste etxe batzuen ezaugarriak ditu. Bi isurkitako

teiltuaren azpian, harlanduz inguratutako leihoak eta dinteldun atea dauzka, hiru ardatzetan antolatuta. Bertikaltasuna markatzen dute ateak, erdian, eta gaineko bi leiho luzeek. Alboetan, leiho bana dauka, txikiak hirugarren solairukoak izanik, teiltuaren okertasunera egokitzeko. Goranzko joera hausteko, ganbaran, alderik alde doan egurrezko balkoia egin zioten. Hormak harlangaitzezkoak ditu. Sarre-rako ateburuko inskripzioaren bidez, egilearen eta dataren berri daukagu: “*A ESPENSAS DE JOSE/ DE ORVE AÑO 1840*”.

toponimia

Ugarte hitz arrunta da eta ibaietan dauden irlak izendatzeaz gain bi erreken arteko gunea ere izan daiteke. Hitz honen osagaiak ur eta arte dira. Toponimo honetan Ugarte leku izenaz gain bide eta artikulua ditugu. Euskal toponimia jatorrean bide bat nora zihoan adierazteko oso arrunta izan da izen+bide egitura eta urriagoa izan da izen+ko+bide egitura. Hala ere, Nafarroa eta Arabako eskualde zabal batean antzina izen+ra+bide egitura erabiltzen zen: Miñaugu-txirabidea toponimoan ikus daitekeen bezala. Izenaren bigarren zatiak Ugartebidea (**ikus Ugartebidea**) baserriaren inguruan eraikitako etxe berria zela adierazten du. Berez, egun erorita eta sasi artean dagoen Ugartebidea baserritik berrehun bat metrora kokatzen da baserri hau.